


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Bittor Olalde Beloki Kamiñero

*Oñati,
Gipuzkoa
(1928-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Zubillaga auzoko Kamiñeruena baserrikoa. Musikaria eta txirrindularia. Gaztetatik izan zuen musikarako zaletasuna eta Zubillagan bizi arren egunero joaten zen Oñatira solfeoa ikastera. Urte asko egin zituen Oñatiko bandan eta, horretaz gain, musika-taldearekin plazaz plaza ibili zen. Erretiratu ostean bizikletan ibiltzen hasi eta urte batean 6.400 km egitea lortu zuen. Bi zaletasun horiei lotutako kontu ugari kontatu zituen 1991n Oñati Irratirako egindako elkarrizketan.

Zintak

ONA-004

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1991-11-13
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Emalea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Lehen dantza gehiago egiten zen

- **Erref:** ONA-004/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Taldearekin hasi zirenean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako erromerietan jotzen zuten eta baita ezkontzetan ere. Garairik onenetan 60 ezkontza izaten zituzten urtean. Lehen dantza gehiago egiten zen ezkontzetan, beharbada jai gutxiago zeudelako gaur baino. Bestalde, lehen ezkonduak ez ziren erromerietara joaten.

Transkripzioa

- Oin dala 38 urte gutxi gorabehera, nun ibiltzen ziñan jotzen, musika jotzen?
- Ni ibilli naiz ba, Bizkaixan eta Araban eta bueno, Gipuzkoan ba hemen ingurutan, danian, hamen inguru danian, Araban bastante, Bizkaixan gutxitxuau baiña Araban asko.
- Eta klaro, garai hartan erromerixatan?
- Erromerixetara, klaro, erromerixetara fan bihar izaten zan.
- Eta bestela ere, ezkontzetara eta bodetara ere deitzen zizuten?
- Bai, bai, asko, bai, asko. Araba aldera eta bodetara gutxi faten giñan, hara gehixen bat erromerixia, ezta? Baiña hemen Gipuzkoa aldian boda asko, hemen Bergaran, Mondrauen, Oñatin asko, Arantzazun be bai, danian.
- Eta adibidez, urte batean zenbat bodatara faten ziñaten?
- Hirurogei bat boda, hola itten nittuan nik urtian, orduan, epokarik onenian. Gero bajauaz fan giñan. Hor ibilliko da, hirurogei bat boda.
- Beraz, astean bat gutxiñez!
- Bai, egunian bi eukittakuak be bai. Atsaldian alde baten, eta gabian beste toki batera.
- Eta adibidez, garai hartako, hasiera haietako bodak eta ya amaierarako bodak diferenteak al ziren?
- Bai, bai, diferentia bai, oso diferentia be. Orduan, oin erromerixetan pasaitten dana pasaitten zan orduan be. Orduan jentia anbientian jarten zan lehenau, gaiñera alkartasun gehixao eguen gaur baiño. Orduan zaharrak eta gaztiak eta dantzan zera itten zan ezta? Gaur berriz ba, dantzan oso gutxi azkenera behintzet dantzan oso gutxi itten zan. Eta segun gaiñera, guri esaten oskuen geu konjunto bat, neu betik ibilli naiz konjunto edo ze horretan, ba, betik mejikania eta pasodoblia eta, ezta? Gauza errezak jotzen, eta horrekin uste dot gehixau animaitten gebela, geuri esaten oskuen posturan. Beste konjunto honeik, gitarristok eta faten zirala eta ezin animau bodarik, ezta? Eta guk ba jokaera horretara itten geben.
- Eta horrela behintzat eragitten zenuten jentia pixka bat dantzatzera ezta?
- Bai.
- Eta, bueno, ba, orduan garai batean gehiago dantzatzzen zan? Arrazoia zergatik, beharbada festa gutxiago zegoelako? Eta zegoenean ondo aprobetxatzen zelako?
- Baleike hori izatia, bai, baleike hori izatia. Orduan fiestak bai auzounatan egoten ziran ezta? Baiña auzounatara eta pasaitten zana, ezkonduak eta ez ziran faten! Ezkonduak eta baikotzak bere gauzak eukitten zittuein etxian eta... Hori be pasaitten da, gaur ez dako hainbeste inportantziarik, gaur ba ezkonduak eta solteruak, bale!

2. Lehenagoko erromeriak altabozik gabe; amaitzeko ordua

- **Erref:** ONA-004/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Lehenagoko erromeriak gogorragoak izaten ziren musikarientzat, altabozik gabe jotzen zutelako. Gauean jo eta hurrengo egunean etxerik etxe joaten ziren dirua batzera. Erromeria noiz arte egin jakiteko baimena eskatzen zen. Gero Guardia zibilak etortzen ziren zaintzera eta ordua iritsitakoan musika bukatzeko agindua ematen zuten.

Transkripzioa

- Garai hartako erromerixak nolakoak ziren?
- Erromerixak gaur baiño gogorrauak izaten ziran. Zeatik ba gaur be altabozak ipini eta bueno, ba, ze itten zan, baiña orduan "a presión de alubias" jo bihar zanian, orduan, Arabara joan eta zelaixen erdi-erdixan, ez paretarik eta ezebez, jarri karro zahar baten gaiñian eta jo eta jo, goizeko ordu bixak arte jotzen, eta hurringu egunian gero, goizian zortziretan jaiki eta "alborada" esaten otsein zerian eta etxerik-etxe batzen ibiltzen giñan, eta ha izaten guretake eskaxena ha izaten zan, deskantsau, bihar dan moduan deskantsau barik, zera, etxera, batzera, diru-batzera joan bihar.
- Eta luze egingo zan gaiñera.
- Bai, bai, luze itten zan klaro, Araban ba herrixak, herri zerak, txikixak izaten dira, ezta? Baiña baserri batetik bestera leku asko, osea ke distantzia haundixak.
- Eta honuntza etorri izan diren pertsonak askotan esan digute ba musika izaten genun, eta musika bukatzen zela edo esateko guardia zibillak etortzen ziran. Zenbat aldiz ikusi dituzu zuk guardia zibillak bukatzeko esatera?
- Bueno, guardia zibillak hemen Madalenen urtero, eta San Pedron be bai, hemen Oñatin bastante, bastante, erromerixatan guk klaro, guk eukitten geben zer bat, auzounak eskaketan zittuan, Aiuntamientua etorri, etxafleruak botateko autorizaziñua eta ze ordu arte erromerixia, ezta? Eta herrixan denpora gehixau emuten euein auzounatan baiño, auzounatan emuten ebein ordua, ba ordurako guardia zibillak etorten ziran, ze ordura arte autorizaziñua eskaketan ebein eta batzutan ordu laren bat edo ordu erdi bat gehittu igual, ezta? Orduan be diferentzia haundixa egoten zan, guardia zibillak kafetxo bat emuten baotsein, purutxo bat emuten baotsein ba, bizkarrian ondo jo eta orduan ordu bete igual eta hori kaltia izaten zan guretake, musikuendako.
- Hori, batzuetan zuek deseaiten ibilliko ziñaten aber noiz bukatuko eta.
- Bai baiña, ambiente ona egoten zan bai, eta ambiente ona dauenian ezta? Ba ni neu gustora pasaitten neben, txarra izaten zan Madalenen plazia bete-bete-betian etaitsuak nola ez dauen ikusten anbienterik eta zera, hareik orduak pasautakuan, hareik luze itten xakon gero, hori bai.

3. Familiatik datorkio musikarako zaletasuna

- **Erref:** ONA-004/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Anaiarekin hasi aurretik Angiozarko soinu-jole batekin ibiltzen zen. Solfeoa ikasten ibili zen gaztetan; gero bandan sartu eta hantxe praktikarekin ikasi zuen gehiena. Gaztetatik izan zuen zaletasuna eta 18-19 urterekin

Zubillagatik Oñatira etortzen zen partikular solfeoa ikastera. Familiatik datorkio musikarako zaletasuna.

4. Arabako herrietako bizipenak, musika jotzera joanda

- **Erref:** ONA-004/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Taldearekin bizi izan zituzten anekdota asko ez direla kontatzeko modukoak dio. Araba aldean, sarritan garbitzera joan eta ez komunik eta ez urik ez zuten izaten etxeek.

Transkripzioa

- Anekdotarik edo izango ditzuzu, ez? 33 urtetan horrela ibilita.
- Bai, bai, anekdotak bueno, hemendik, hemen ezin leike kontau, nik anekdota horreik kontaitten ditztut gustora etxian, eta lagun artian eta hola, baiña hemen... anekdota batzuk dao ezin lekienak kontau, Araba aldian eta pasautakuak eta, bueno, bueno, bueno, barre itteko.
- Garai haiek ez ziran gaur egungoak bezela.
- Ez, ez, ene!
- Eta, horixek, garai hartako beharrak askotan anekdota bihurtzen dira gaur egun, ezta?
- Bai, han joan baserri batera eta ez argirik be ez, urik be ez, eta kumunik be ez, eta garbiketako fan bihar eta, ba ganauakin batera, erreka ezkiñara, askotan, hori Bittorixatik urrin barik, e? Bittorixatik hamar kilometrora hori e?

5. Bere lehenengo bizikleta

- **Erref:** ONA-004/008
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Betidanik izan du bizikletan ibiltzeko zaletasuna. Bere aita pisu handikoa zen eta bigarren eskuko bizikleta ona eta sendoa erosi zuen. Hura izan zen bere lehen bizikleta.

Transkripzioa

- Zure lehen txirrindua, lehen bizikleta noiz izan zenuen?
- Ba nik leheningo... ba eztaikit, oso gaztetatik, ikasi beste baten bizikletiaz in neben, baiña gure aitta be pixu haundiko gizona zan eta bizikletia zahartutakuan iñ eben beste bat erosi, fuertiaua, bizikleta on bat erosi

eben, ezta? Usaua erosi eben baiña aberats baten bizikleta on bat erosi eben, eta nire bizikletia ha izan zan. Aitta zaharrakin ibiltten zan, konpondu arte emun otsan, bizikleta zaharraz eta kanbixua eta jarri notsan gero eta hareaz haik eta ezkondu arte.

6. Erretiratu ostean hasi zen bizikletan gogor

- **Erref:** ONA-004/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Lanik gabe geratu zenean medikuak esaten zion geldik egon behar zela, bizkarrean zuen gaitzagatik eta desgasteagatik. Etxean geldik egoten gogortu egiten zen eta semeak bultzatuta bizikletan ibiltzen hasi zen. Piskanaka-piskanaka joan zen martxa hartzen eta 100 km. egiteraino iritsi dela aipatzen du. Egun batean ibili eta hurrengoan deskantsatu egiten du. Hasieran lotsa ematen zion bizikletako arropa jazteak.

Transkripzioa

- Dena dela, bizikletaz, ba, gehiago gozatzen orain dala gutxi hasi zara.

Orain dala urte gutxi.

- Bai, bai, bai.

- Nolatan?

- Bueno ba, hori izan da, taillerretik lan barik geratu nintzanian, ezta? Ba etxian, ba nere gaitz bat baneukan zerbikaletatik, eta gero desgastia be bai, behin zahartu ezkerro gauzak ailegaitten diranak, ezta? Eta etxian medikuak esaten nontan ba geldik egoteko, geldik edo... irakurri eta in bihar baneuen, ba apoiauta itteko, eta klaro, jazarritta egoten, egoten, egoten, ba gogortu itten nintzan, zutiketan hasi eta zutittu ezindda.

Hortara, ba, semiak ikusi ebenian nere egoera, semia hasi xaten demandan hasi xaten, eta semiak ba zeozer itteko esaten nontan, bizikletan ibiltteko, bizikletan ibiltteko, eta klaro, neri gustaitten xaten bizikletia baiña, berrogeita hamasei-hamazazpi urtekin bizikletan hasiko banintza ba... Eta ia zeatik ezetz semia demandan, ezta? Eta egunero etxera etorten zanian "¿qué, ya has andau en bicicleta?" "No" "¿Ya has andau?" egunero. Eta azkenian, noizbaitten dezidiu neben eta hasi nintzan holaxe. Eta politto-politto-politto, lehenengo bizikletia hartu nebenian San Prudentzioraiño fan nintzan. San Prudentzioraiño fan eta etxera ailegau eta lehenengo pisora igoteko ba barandauari obatuta, ezin!

- Ezin!

- Ezin, baiña harreatik, ba, ez notzan itxi artian, artian jarraitu in neben eta holaxe, politto-politto hasi nintzan.

- Hori da, utzi partez, jarraitu egin zendun.

- Bai, bai, bai, biaje mordoxka bat in nittuen San Prudentzioraiño, gero handik sartu nintzan Olatera, San Prudentziotik Olatera, eta gehittuaz, gehittuaz fan nintzan, ezta? Eta ba oin ba, trankilo etxera.

- Ehun kilometro?

- Bai, ehun kilometro. Baiña, aurten be baten in dot ehun ta zazpikua. Aurten behin in dot eta, fan dan urtian be hiru aldiz in neben hori, "vuelta a la costa" eta, ba, ezta? Beste baten Debaraiño joan eta gero Debatik

Eskoriatzara eta horreik ehun ta sei-zazpi kilometro urteten daue horreik.

- Dena dela badakigu nolabaitteko arauak edo jarri dizkiozula zure buruari, e, egun batean ibilli eta hurrenguan deskanso itten dezu beti.
- Bai, bai, deskanso itten dot bai, ez asperketako, bestela aspertu be in leke, ezta? Eta egun baten ibili eta bestian deskanso itten dotenian, ba hurringu egunerako ya ilusiñuaz egoten zara atzera bizikletan ibiltteko. Klaro, denporiakin jokatu bihar da, denporia ona dauen edo ez dauen edo, ezta? Klaro, etxat gustaitten euri antzakin baldin badau ez dot urteten, karreteria bustitta baldin badau be ez, haizia fuerte samarra baldin badau, ezta. Eta ba gero ba horixe, hotzakin be horixe, tenperaturiari begiratura betik; behin hamabi bat gradu, neuk norma batzuk hartuta dakot eta behin hamabi grado ezkeru ez dot urteten, hamabittik behera baldin badau, hamabittik gora baldin badau jersei bat edo gehixau jantzi eta urten.
- Badakigu, dena den, hasieran nolabaitteko lotsa ematen zizula, ba, bizikletan oso erropa jakin batekin ibiltzia. Zer gertatu zan hor, Bittor?
- Zera, lotsatu itten nintzan. Klaro, lehenengo hasi nintzan fraka normalakin, baiña semiak esaten nontan gertatu biher zala piszinara — semiak hori esaten nontan— piszinara faten dan moduan traje de baiñuakin, bizikletarako preparau bihar dala erropa egogixakin eta zapata egogixakin. Ba nik alde batetik dirua gastau bihar naben, eta bestetik lotsatu ni erropa horrekin. Bueno, ba, holaxe, lehenengo, akordaitten naiz lehenengo fraka motzak jantzi nittuanian, bueno, pentsaitten neben mundu dana neuri begira eguela, lotsatu itten nintzan, egixa.

7. Gaztetako ibilerak 20 kiloko bizikletarekin

- **Erref:** ONA-004/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Bere gaztetako bizikletak 20 kilo zituen; nolako zen azaltzen du. Sarritan egiten zuten "vuelta a la costa" bazkaria hartuta. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Gaztetan indda nau ni buelta bat, lagunak beria, akordaitten da laguna. Orduan be, baneukan nere zeretxua baneukan, "vuelta a la costa" bizikleta horrekin, bazkarixak hartu eta goizian hamarretakua in zerian, ezta, Azkoittin, handik Zarautzera, Zarautzen anaiak eta, anaiakin nintzan orduan, eta anaiak eta igari in, eta Debara, Debatik zerera, ehun eta hogetaka kilometruak indda sasoi hartan be, behin baiño gehixautan, e? Loiolara eta sarri bizikletan, orduan be, gustau, hori gaztetan e? Gaztetako zerak, e?

- Eta hori zuk esaten zenuna, bizikleta sekulako pixuakin gaiñera.
- Bai, hogeitazulo automatikua neukan nik, baiña pixua astuna, bizikleta fuertia, aproposa hartakotxe, gure aittandako eta aproposa, han ibili zan, eta azkenian primo bateri saldu notsan.
- Orduan harekin be negoziua egin zendun.
- Bai negoziua, bai, neri ez xaten kostau ezer eta.

8. Urtebetea 6.400 km. bizikletan

- **Erref:** ONA-004/014
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

1989an urte lehorra izan zenez 6.400 km. egin omen zituen urtebetea. Neguan ere ibiltzen da bizikletan, baina ateri dagoenean soilik.

Transkripzioa

- Bueno, badakigu orain dala bi urte, bueno, nahiko urte politta egin zun, bueno, urte politta, sekulako lehortea izan genuen 89an, eta orduan nahiko errekor politta egin zendun zuk ere. Zenbat kilometro gutxi gorabehera?

- 6.400 kilometro in nittun urte hartan.

- 6.400 kilometro!

- Bai, bai, oseake neretako denporia zelakua itten dauen, hola izaten da. Aurten be politto nebillen, baiña oin San Migelak ezker euria hasi dau eta ba ez, holako denporiakin ezin leke urten.

- Negua aurten oso oso goiz sartu zaigu.

- Bai, bai, goiz etorri da bai, goiz. Baiña bueno, ni neguan be igual-igual ibiltten naiz, oseake izotza goizian izugarria egiñatik be, bazkal ostian eguzkixa baldin badau, gertatu eta besterik ez bada, 50 kilometro ittera. Klaro illunkaran lehenau etxera etorri bihar dozu, behin bostak ezker hotziketan hasten da, ezta? Eta ba ordu horretarako etxera etorri bihar; ba, hiru bat ordu bizikletan in eta ba etxera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com